

ERABAKIA, 2024ko AZAROAREN 28koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ONARTZEKO LAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK ERAON 2025 AZOKAN PARTE HAR DEZATEN UPV/EHUren IKASTEGIETAKO NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOARI LOTUTAKO IRAKASLE-IKERTZAILEEK (IRI) ETA TEKNIKARIEK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEK (TEKAZEL)

UPV/EHUren nazioarteko harremanak ikastegi ezberdinen intereseko politikekin bat etorri zabalduko bada, etengabeko ekintza behar da, unibertsitatea, oro har, ikusgarri egiten laguntzeko. Azken urteotan nazioartekotzera irekitzeko hasitako politikaren esparruan, sumatzen da unibertsitatearen barruan zeregin horretan dihardutenei balioa eman behar zaiela.

Helburu bikoitz hau aintzat hartuta, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak indartu nahi du ikastegien eta unibertsitateak, European Association of Erasmus Coordinators (EAEC) urtero antolatzen duen ERAON azokan duten presentzia, geure ikastegietako ordezkariak bertara daitezela finantzatuz. Horrela, gure erakundearen presentzia iraunkorra lortu nahi da unibertsitateak nazioartekotzeko Europako foro handiengan.

Kreditua egon badagoela kontuan izanda, eman dizkidaten eskumenen babesean, hauxe

ERABAKI DUT:

Onartzea eta argitara ematea UPV/EHUren ikastegietako nazioarteko harremanen arloari dagozkion eginkizunetan diharduten irakasle-ikertzaileek eta TEKAZELEko kideek ERAON 2025-en parte hartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

OINARRIAK:

1. Zenbateko osoa

Deialdi honetarako 12.000,00€ gorde dira errektoreordetza honetako aurrekontuen kargura (organikoa: 3801; funtzionala: E42).

Esleipena egiten den unean kreditu erabilgarria agortuko ez balitz, soberakina UPV/EHUren nazioartekotzea bultzatzeko ekintzetara bideratuko da.

2. Deialdiaren xedea

Honako deialdi honen helburua da UPV/EHUk nazioarteko unibertsitateen eszenan duen presentzia areagotzea, ikastegietako nazioarteko harremanen arloko irakasle-ikertzaileek eta TEKAZELEko kideek ERACON azokan duten parte hartzearen bidez. Emaizta, bazkideekiko bilerak eta ikastegietarako mugikortasun hitzarmen berrien arabera, aintzat hartuko da ekintza honetan izandako arrakasta balioesteko.

Gainera, parte hartzaileek UPV/EHUren irudia zabaltzen lagunduko dute, material komunak erabiliz eta helburu bateratua transmitituz.

3. Parte hartzeko baldintzak

1. Eskatzaileek UPV/EHUko ikastegietako eta ikastegi atxikietako irakasle-ikertzaile edo TEKAZELEko kide behar dute izan eta, gainera, nazioarteko harremanen arloari berariaz dagozkion eginkizunetan jardun behar dute.
2. Eskari egileek atzerriko hizkuntza baten ezagutza maila egiaztatu behar dute (gutxien dela B1).¹
3. Eskatzaileek bidaiarako aseguru bat egin beharko dute, egonaldi OSOAN gaixotasunagatik (Covid-19a barne) eta istripuengatik jaso beharreko arreta medikua bere baitan hartzen duena. Seguru honek gastuen mugagabeko estaldura izango du, interesduna hilez gero aberarriratzeko eta bere herrialdera bueltara eramateko, gaixotasun edo istripu larria izanez gero.
4. Parte-hartzaileek sustapenari eta erakarpenari buruzko alde aurreko online prestakuntza jasoko dute.

4. Laguntzen zenbatekoa

Laguntza bakoitzaren zenbatekoak ekintzak eragindako gastuak estaltzea izango du helburu (biltzarrean izena ematea, segurua, bidaiaria, ostatua eta mantenua), eta gehienez 2.000 eurokoa izango da egonaldiko, honela banatuta:

- **Izen-ematea:** 500€. Hori justifikatzeko, jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.
- **Bidaia:** Pertsona bakoitzeko gehienez 500€ erabiliko dira joan-etorriko garraioa ordaintzeko. Hori justifikatzeko, jatorrizko faktura eta hegazkineko txartelak aurkeztu beharko dira.
- **Ostatua:** Ostatu gastu bat sortzen bada benetan gastatutakoa ordainduko da, betiere gainditzen ez bada I. eta II. eranskinetan jasotako gehieneko

¹ Onartu egingo dira CRUEk eta ACLEsek onartzen dituzten ziurtagiriak, esteka honetan eskuragarri daudenak <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-gaitasunaren-akreditazioa/>; bai eta ofizialak ez diren hizkuntzetan UPV/EHUko irakasleen hizkuntz gaitasunaren akreditazioak ere: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasuna/akreditazio-probak>

muga. Muga hori %25ean gainditu ahalko da egitasmo horren antolakuntzaren ostalaritza eskaintzaren barruan baldin badago. Zerbitzu eginkizunean eginiko gastuen justifikazioan, fakturari erantsiko zaio egitasmoaren antolakuntzak adostutako hotel eskaintzaren xehetasuna.

- **Mantenua:** Benetan gastatutako kopurua ordainduko da, I eta II Eranskinetan jasotako balioa gainditu gabe. Gastua egiaztatzeko, jatorrizko egiaztatgiriak aurkeztu behar dira.
- **Bidaia-asegurua:** Pertsona bakoitzeko gehienez 30€ erabiliko dira bidaia-asegururako. UPV/EHUK eskaintzen duen IBILI BEREZI aseguruaukera bat da (<https://www.ehu.eus/es/web/kontratazioa/ibili-berezi>). Hori justifikatu ahal izateko, jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.

Laguntzaren azken zenbatekoa parte-hartzaile bakoitzak aurkeztutako fakturretara egokituko da, gehienez 2.000 € egonaldi bakoitzeko.

5. Aurreikusitako jarduerak

Oro har, gutxienez hiru egunez finantzatuko da azokan parte hartzea. Diruz lagun daitekeen egonaldia, gehienez ere, ERACON azokaren iraupena izango da, gehi joan-etorriko egunak, UPV/EHUKo zerbitzuagatiko eta ordezkariak gastuengatiko kalte-ordainen zehaztapenei buruz Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kudeatzaileak 2024ko otsailaren 23an emandako Ebazpenak ezarritako baldintzetan.

6. Eskaera

Eskari bateratuak egingo dira ikastegika. Eskariak eredu arautuan aurkeztu behar dira 1. eranskina, dekanoren edo zuzendariaren baimena eta atzerriko hizkuntzaren ziurtagiria barne.

Ikastegi bakoitzeko eskabide bakarra (1. Eranskina) onartuko da eta, gehienez ere, bi pertsona eskabide bakoitzeko. Aurrekontua agortu arte ahalik eta ikastegi gehienek parte hartzeko moduan banatuko dira laguntzak, eta horrek eskabide bakoitzean agertzen den lehenengoari ez beste inori esleitzea ekar dezake.

Laguntza bat esleituko bazaio eskarian sartutako pertsonetako bakar bati, honek uko egin eta eskarian dagoen beste pertsonari utzi ahal izango dio, bai eta eginkizun hauetan bere ordezkari den bere ikastegiko beste pertsona bati ere. Biek eginez gero uko laguntzari, beste ikastegi bati emango zaio.

7. Eskaria aurkezteko epea eta era

Eskariak aurkezteko epea deialdia webgunean argitaratuko denean hasiko da eta 2024ko **abenduaren 13an** bukatuko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUREKIKO harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere):

- **Eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez:** <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Hedakuntza (U02000247)** aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUREN txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUREN bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUREN bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Prozedura hasteko eskariak 39/2015 legearen 66. artikulua adierazten duen baldintza guztiak betetzen ez baditu, eta, hala dagokionean, 39/2015 legearen 67. artikulua adierazten dituenak, edo aplikatzekoak diren beste lege batzuek eskatutakoak, interesatuari eskatuko zaio 10 egunetako epean akatsak **zuzendu** edo falta diren nahitaezko dokumentuak bidaltzeko. Eta jakinaraziko zaio hala egin ezean atzera botako diotela eskaria, lehenago erabakia emanda urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan jasotakoaren arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

8. Eskaerak baloratzeko irizpideak

Laguntza emateko oinarritzko balorazio-irizpidea izango da 2024ko azaroaren 28an GAUREn eskatzailearen lan zentruan 2023-24 ikasturterako onartutako ikasketetarako Erasmus+ atzerrira joateko mugikortasun kopuru handienetik txikienerakoa. 2022 urtekoko deialditik laguntza hori jaso ez duten ikastegi eskatzaileak egongo balira, horiek lehentasuna izango dute. Bigarrenik, lehenetasuna izango dute 2022 urtetik laguntza hori gutxiagotan jaso duten ikastegiei (2. eranskina).

Berdinketa gertatuz gero, GAUREn 2023-24 ikasturterako onartutako ikasketetarako atzerritik etortzeko Erasmus+ mugikortasun kopuru handiena baloratuko da, 2024ko azaroaren 28an.

9. Erabakia

Eskabidea egiteko epea amaitu ondoren, eta 8. puntuan zehaztutakoaren arabera balorazioak egin eta gero, ebazpena **Euskara, Kultura eta Nazioartekotze arloko Errektoreordetzaren** webgunean argitaratuko da.

Parte-hartzaile bakoitzak plazaren onarpen edo uko adierazpena bidali beharko du erregistro elektronikoen bitartez, behin betiko ebazpena argitaratu eta 10 egun baliodunen epean.

Bidaiako aseguruak kontratatu izanaren egiaztagiria gasteiz.welcomecentre@ehu.eus helbide elektronikora bidali beharko da azoka hasi baino hamabost egun lehenago, gutxienez.

10. Laguntza ordaintzea

Gastuak ordainketa bakarrean ordainduko dira egonaldia amaitu ondoren, gastuak IZAPIDE aplikazioaren bidez aurkeztuta. UPV/EHUko zerbitzuagatiko eta protokolo eta ordezkariak gastuengatiko kalte-ordainen arloko zehaztapenei buruz Irakasle-Ikertzaileen Errektoreordeak eta gerenteak, 2024ko otsailaren 23an emandako Ebazpenarekin bat inskripzio, joan-etorriko, ostatuko, gosariko (ostatuan sartuta ez badago), bazkariko eta/edo afariko gastuei dagozkien jatorrizko tiketak edo fakturak aurkeztea derrigorrezkoa da, benetan gastatutako zenbatekoa bakarrik ordainduko baita.

Onuradunak inskripzioaren eta seguruaren gastua likidatu ahalko dute azoka baino lehen. Bestelako gastuak azoka amaitzean ordainduko dira. Bi kasuetan aurretik azaldutako prozedura jarraitu beharko da.

Justifikatutako arrazoirik ezean, egonaldiaren amaieratik gehienez 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da gastuen likidazioa.

Horrez gain, ikastegi bakoitzak egindako jardueri eta emaitzei buruzko txosten labur bat bidaliko du (3. eranskina) azoka amaitu ondoren hilabete bateko epean.

11. Onuradunen betebeharrak

Deialdian adierazitako oinarri eta/edo epeak ez betetzea, datuak ezkutatzea, aldatzea edo manipulatzeko emandako laguntza ezesteko, eteteko edo deuseztatzeko kausa izan daitezke, eta ordaindutako kantitateak itzuli beharra ekarriko luke.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak eskatuko ahal dizkie onuradunei bere ustez egokiak diren agiriak, laguntza behar bezala aprobetxatu dela erakusten duen txostenarekin batera.

12. Aurka egiteko erak

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenaren eta Sinplifikazioaren Administrazio Batzordeari, COARD/EISBARI hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein ere erabil dezake.

Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik 3 hilabete igaro eta ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsizat joko da administrazioaren isiltasunagatik, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioan, 2024ko azaroaren 28an

M. Juncal Gutierrez Mangado
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen
arloko errektoreordea